



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2003ko otsailaren 4a

6. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (2. or.).

I SAILA:

Parlamentuko Jarduera:

—2002ko azaroan egindako bilerak (5. or.).

—2002ko azaroan Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean sartu diren dokumentuen zerrenda (8. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzkoa

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikulua ezarritakoa betez, 2002ko irailaren 16ko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratutako Foru Lege proposamenari, indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzko uztailaren 2ko 22/2002 Foru Legea aldatzekoari, aurkezturiko zuzenketak Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agintzen da.

Iruñean, 2003ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

1. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MARINÉ PUEYO DANSO
ANDREAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa. 6. artikuluari 6. idatz-zati bat gehitzea proposatzen da. Hona testua:

“Nafarroako Gobernuak Hezkidetzako Aholkularitza Berriazkoa ezarriko du Pedagogi Berrikuntzako atalean eta Irakasleentzako Laguntza Zentroetan (ILZ), Hezkuntza Departamentuaren menpe.”

Zioak: Onetsitako legean ez da garbi gelditzen aipatu atalean eta Hezkuntzaren menpe ezarriko dela Hezkidetzako Aholkularitza Berriazkoa.

2. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MARINÉ PUEYO DANSO
ANDREAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa. 6. artikuluari 7. idatz-zati bat gehitzea proposatzen da. Hona testua:

“Hezkuntzaren esparruan, sexu erasoak faltatzat joko dira, eta halatan, hartu beharreko neurriak arautuko ditu ikastetxe bakoitzaren erregelamendu organikoak, eta hartan espresuki azalduko dira bizikidetasunari buruzko oinarrizko arauak — ondokoetan oinarrituta: pertsona guztienganako errespetua, giza harremanetatik indarkeria oro desagerraraztea eta, horrenbestez, sexu indarkeriazko jokabideekiko arbuio erabatekoa—, bai eta jokabide sexista horiek zuzendu edo zehatzeko neurriak ere, gisa horretako jarrereri bidea ematen baitiete.”

Zioak: Ikastetxe guztietan sexu erasoak faltatzat joko direla ezarri nahi da, eta halatan, kontua da ikastetxe bakoitzeko barne araudiak hori arautzea.

3. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MARINÉ PUEYO DANSO
ANDREAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa. 6. artikuluari 8. idatz-zati bat gehitzea proposatzen da. Hona testua:

Nafarroako Gobernuak, hezkidetzaren ikuspegi batetik, eskola materialen berrikuspen sistematikoa eta erabilera kritikoa sustatuko du hezkuntza maila guztietan, eta erretiratu egingen ditu gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasunaren printzipioa urratzen duten materialak.

Zioak: Onetsitako testutik ez da ondorioztatzen Gobernuak hezkidetzaren ikuspegi batetik sustatuko duela eskola materialen berrikuspen sistematikoa eta erabilera kritikoa.

4. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MARINÉ PUEYO DANSO
 ANDREAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa. 9. bis artikuluko 1. idatz-zatiari honako testu hau gehitzea proposatzen da:

“Zentro horiek euren zerbitzuak eman beharko dizkiete erabiltzaileei bai goizez bai arratsaldez.”

Zioak: Herritarren beharrezanean erantzun egokia emanen zaiela bermatu nahi da.

5. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MARINÉ PUEYO DANSO
 ANDREAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa. 15. ter) artikuluko berri bat gehitzea proposatzen da. Hona testua:

“15. artikulua. Neurri juridikoak.

1. Behar diren giza eta diru baliabideak jarriko dira emakumeen eta adingabeen kontrako indarkeriaren arazoetarako fiskaltza bereziak modu eraginkorrean eta arinean bete dezan bere zeregina, Justizia Ministerioarekin ezarri beharko diren akordio edo hitzarmenen esparruan. Akordio horietan ezarriko dira behar diren elementuak, gertatzen diren tratu txar eta eraso sexisten kasu guztiak eta kasu bakoitzean izandako salaketak ezagut daitezten. Nahitaezkoa izanen da Ministerio Fiskalak agerraldia egitea tratu txarren eta/edo erasoen ondorioz eginiko epaiketa guztietan. Era berean, akordio horietan aurreikusi beharko da Ministerio Fiskalak epaiketetan akusazio gisa jarduten segi dezan tratu txarrak edo/eta erasoak izan diren zantzuak dauden guztietan, falta epaiketetan barne, biktimak salaketa kendu duenean ere.

2. Kasuan kasuko instantziak premiatuko dira emakumeek eta adingabeek jasandako tratu txarregatik eta/edo erasoengatik irekitako prozedurei presako tramitazioa eman diezaieten epaitegiek, eta epaiketak azkar eginen dira, eta horretarako behar diren giza eta gauza baliabideak erabiliko dira. Era berean, hasieratik bertatik gertaerak sakon aztertu eta mugatuko dira, delitua ala falta diren ikusteko, eta salaketa gehiagorik izan ote den ikertuko da. Zenbait salaketa direnean, epaitegi berean tramitatuko dira.

3. Justizia Ministerioari eskatuko zaio abian jarritzan emakumeen eta adingabeen kontrako tratu

txarren eta/edo erasoen kasuetan espezializaturiko epaitegi bakarria izateko behar diren neurriak.

4. Nafarroako Gobernuak, bere eskumenean esparruan, bultzada emanen dio Prozedura Kriminaleko Legea aldatzeari buruzko 1999ko ekainaren 9ko Legean eta Zigor Kodean tratu txarren biktimak babesteko ageri diren neurriak —kaute-lazkoak nola behin betikoak— aplikatu eta garatzeari, halako moldez non epaileak, emakumeen edo haurren kontrako delitu baten berri duenean, kaltetuei babesa emateko neurria hartu beharko baitu nahitaez.”

Zioak: Biktimei babesa emateko xedez justizia ahal den guztia egiten ari dela bermatzearen, ezinbestekoa da egoera horretan laguntza handiago eta hobea ematen lagun dezaketen tresnak gaitzea.

6. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MARINÉ PUEYO DANSO
 ANDREAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa. 19. bis) artikuluko berria gehitzea proposatzen da. Hauxe du testua:

“19. bis) artikulua. Egoitza babestuak.

Nafarroako Gobernuak, lege honek indarra hartu eta urtebeteko epean, tratu txarrak luzaroan jasan dituztelako nariadura psikiko nabarmenak izan eta nolabaiteko babesa behar duten emakumeentzako egoitza babestuak sortzeko irizpideak arautuko ditu. Betiere, gutxienez ere gisa horretako egoitza bat egonen dela bermatuko da.”

Zioak: Gaur egun ez dagoen baina asko eskatzen den zerbitzu bat ezartzea da helburua.

7. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MARINÉ PUEYO DANSO
 ANDREAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa. 23. bis) artikuluko berria gehitzea proposatzen da. Hauxe du testua:

“23. artikulua. Ludohurtzaindegia.

1. 0tik 12 urtera bitarteko haurrentzako zentro publikoak ezarriko dira. Zabalik egonen dira urte osoan, goizeko 8etatik arratsaldeko 20ak bitarte, eta baloratu eginen dira bestelako beharrezan zehatzak.

2. Zerbitzu horren menpe, laguntza eta prebentzio lana eginen da nerabeekin eskola laguntzaren eta bestelako jardueren bitartez, auzoko edo herriko beste talde batzuekin elkarlanean.

3. Zaintzaileen sare bat sortuko da, emakumearen kargura dauden seme-alabak edo zaharrak gaixotuz gero laguntza etxean emanen dutenak.

Zioak: Egoera horretan bizi diren emakumeak laneratzeko ezinbesteko laguntza dakarren zerbitzua sortu nahi da.

I saila:
PARLAMENTUKO JARDUERA

2002ko azaroan egindako bilerak**MAHAIA**

6an.

MAHAIA ETA BOZERAMAILEEN BATZARRA

4, 11, 12, 19 eta 25ean.

OSOKO BILKURA

7an:

– a) Foru Lege proiektua, lau kreditu berezi —guztira, 3.960.000 euro egiten dutenak— eta 14.497.261 euro egiten duen kreditu-gehigarri bat emateko eskatzekoa, Ekonomia eta Ogasun Departamentuan, Hezkuntza eta Kultura Departamentuan, Osasun Departamentuan eta Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuan sortutako aurrekontu-beharrizanei aurre egin ahal izateko, zuzenean eta irakurketa bakarrean bidera dadin onestea, egoki iritziz gero.

b) Foru Lege proiektua, lau kreditu berezi —guztira, 3.960.000 euro egiten dutenak— eta 14.497.261 euro egiten duen kreditu-gehigarri bat emateko eskatzekoa, Ekonomia eta Ogasun Departamentuan, Hezkuntza eta Kultura Departamentuan, Osasun Departamentuan eta Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuan sortutako aurrekontu-beharrizanei aurre egin ahal izateko, eztabaidatu eta bozkatzea. (1. eranskina).

–Nafarroako Foru Komunitateko goi-mailako eta unibertsitateko irakaskuntzan euskara erabiltzeari buruzkoa Foru Lege proposamena aintzat hartzea, hala erabakiz gero. Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Nafarroako Foru Komunitateko goi-mailako eta unibertsitateko irakaskuntzan euskara erabiltzeari buruzkoa Foru Lege proposamena aintzat hartzea, hala erabakiz gero. Nafarroako Demokrateen Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen erabilera arautzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea, hala erabakiz gero. Foru Lege proposamena Begoña Errazti Esnal andreak aurkeztu zuen.

– Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko seigarren titulua (Kontratazioa) aldatzeko Foru Lege proiektuaren irizpena, Toki Administrazioiko Batzordeak onetsitakoa, eztabaidatu eta bozkatzea.

– Toki azpiegiturei buruzko 2004ko plan bereziari buruzko Foru Lege proiektuaren irizpena, Toki Administrazioiko Batzordeak onetsitakoa, eztabaidatu eta bozkatzea.

– Emakumeen eta gizonen aukera berdintasunaren aldeko jarduketari buruzko Foru Lege proposamenaren irizpena, Gizarte Gaietako Batzordeak onetsitakoa, eztabaidatu eta bozkatzea.

– Lanbide karrerako sistemaren aplikazio esparrua Osasun Departamentuko eta haren erakunde autonomoetako beste osasun langileei zabaltzen dien Foru Lege proiektuaren irizpena, Osasun Batzordeak onetsitakoa, eztabaidatu eta bozkatzea.

– Nafarroako liburutegien sistema arautzen duen Foru Lege proposamenaren irizpena, Hezkuntza eta Kultura Batzordeak onetsitakoa, eztabaidatu eta bozkatzea.

21ean:

– Pertsona zaharrak hartzeari buruzko Foru Lege proposamenari buruz Toki Administrazioiko Batzordeak eginiko irizpena eztabaidatu eta bozkatzea.

– Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak hobetzeko neurriari buruzko uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea, hala erabakiz gero. Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Nafarroako Euskararen Kontseiluko kideei buruzko jabeldura, Arroyo Leatxe jaunak aurkeztua.

– Indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzko uztailaren 2ko 22/2002 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea hala erabakiz gero. Foru parlamentari Úriz Iglesias, Arboniés Bermejo, Burguete Torres eta Errazti Esnal jaun-andreek aurkeztu dute.

– Indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzko uztailaren 2ko 22/2002 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea, hala erabakiz gero. Barrena Arza jaunak aurkeztu du.

– Indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzko uztailaren 2ko 22/2002 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea, hala erabakiz gero. Rubio Salvatierra andreak aurkeztu du.

– Nafarroako merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea, hala erabakiz gero. Aierdi Fernández de Barrena jaunak aurkeztu du.

– Azken bi ekitaldion osasun arloan izaniko gastu politikari eta etorkizunerako aurreikuspenei buruzko jabeldura. Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Herritarrek interes sozialeko "beste xedeetarako" edo eliza katolikorako bideratzen duten kuota osoaren erabilerari buruzko jabeldura, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua.

– Generoko indarkeriari buruzko adierazpen instituzionala, Eledunen Batzarrak azaroaren 4an onetsia.

LURRALDEAREN ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO BATZORDEA

5, 6 eta 14an:

– Lurraldearen antolamendu eta hirigintzari Foru Lege proiektua eta hari aurkezteko zuzenketak eztabaidatu eta bozkatzea.

INDUSTRIA, LAN, MERKATARITZA ETA TURISMO BATZORDEA

5ean:

– Lan bilera. Bertan, Nafarroako Enpresaburuaren Konfederazioa (CEN), Merkataritza Ganbara eta Nafarroako Lan Enpresen Elkarte (ANEL)

agertuko dira Nafarroako egungo egoera ekonomikoari buruz duten iritzia azaltzeko:

8an:

– Lan bilera. Bertan, Eusko Langileen Alkartasuna-Solidaridad de Trabajadores Vascos (ELA/STV) eta Langile Abertzaleen Batzordeak (LAB) sindikatuak agertuko dira Nafarroako egungo egoera ekonomikoari buruz duten iritzia azaltzeko.

26 eta 28an:

– Turismoari buruzko Foru Lege proiektua eta hari aurkezteko zuzenketak eztabaidatu eta bozkatzea.

FORU ARAUBIDE BATZORDEA

6an:

– Idazkaria hautatzea.

– Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuari eta Administrazioari buruzko Foru Lege proposamena eta hari aurkeztutako zuzenketak eztabaidatu eta bozkatzea.

HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEA

8an:

– Bisita, Hezkuntza eta Katuraren Batzordeko kideak Jorge Oteizaren fundazioaren Alzuzako museora joan dira, eskulturen kontserbazio egoera eta bertan dauden obretako kontserbazio eta segurtasun baldintzak ezagutzeko.

12an:

– Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren agerrialdia, Eledunen Batzarrak eskatuta, zenbait ikastetxetan euskara dela-eta dagoen egoera azaltzeko.

GIZARTE GAIETAKO BATZORDEA

12an:

– Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren agerrialdia, Eledunen Batzarrak eskaturik, etxeko etxeko laguntzaren berrantolamenduari buruz informatzeko.

HERRILAN ETA AZPIEGITURA BATZORDEA

12an:

– Nafarroako errepideei buruzko II. plan zuzendaria: 2002-2009. Aurkeztutako zuzenketak eztabaidatu eta bozkatzea.

OSASUN BATZORDEA

13an:

– Lan bilera. Bertan, Nafarroako Laguntzako Sendagile eta Erizainen Elkarteko (NAMER) ordezkariak agertuko dira, beren lanbide-egoeraren berri emateko.

13, 22 eta 26an:

– Tabakoaren aurrean gaixotasunei aurrea hartu eta osasuna bultzatu eta babesteko Foru Lege proiektua eta hari aurkeztutako zuzenketak eztabaidatu eta bozkatzea.

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berma dezan oinarritzko osasun laguntzako zentroetan laguntza pediatrikoa pediatriako sendagile espezialistek ematen dutela.

22an:

– Bisita. Osasun Batzordeko kideak SOS-Nafarroako Koordinazio Operatiboko Zentrora joan dira, larrialdiak kudeatzeko Positron sistema informatiko berriaren funtzionamendua bertatik bertara ezagutzeko.

**EKONOMIA, OGASUN
ETA AURREKONTU BATZORDEA**

20an:

– Lan bilera. Bertan agerraldia egingen du Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun kontseilariak, egoki jotzen dituen zuzendari nagusi eta teknikariek, 2003ko ekitaldirako Aurrekontuei buruzko Foru Lege proiektua azaltzeko.

26an:

– Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren agerraldia, Eledunen Batzarrak eskatuta, KPIaren bilakaera negatiboari buruz informatzeko.

**LEHENDAKARITZA, FUNTZIO PUBLIKO
ETA BARNE BATZORDEA**

20an:

– Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileentzako neurriei buruzko Foru Lege proiektua eta hari aurkeztutako zuzenketak eztabaidatu eta bozkatzea.

– Nafarroako Hotz Protesigileen Elkargo Ofiziala sortzeko Foru Lege proiektua eta hari aurkeztutako zuzenketak eztabaidatu eta bozkatzea.

– Socialistas del Parlamento de Navarra eta Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeek aurkezturiko mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Haren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoaren egoera dela-eta, Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako plan zuzentzailearen jarraipenari buruzko dokumentazioa aurkez dezan.

**NEKAZARITZA, ABELTZAINITZA
ETA MENDI BATZORDEA**

22an:

– Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren agerraldia, Eledunen Batzarrak eskatutik, Abatores aldeko lurzati berrantolamenduari ekitean sortutako arazo berri eman dezan.

**BIZIKIDETASUNAREN ETA NAZIOARTEKO
ELKARTASUNAREN BATZORDE BEREZIA**

27an:

– Lan bilera. Bertan, GAPAEI-Nafarroako ordezkariak eta Ortiz Vázquez eta López Almazán andreak, indigena mixtekoak baitira, herri mixtekoaren egoerari buruz informatzeko dute.

2002ko azaroan Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean sartu diren dokumentuen zerrenda

4an:

– Saharak Nafarroan duen Ordezkaritzaren idazkia, Saharako errefuxiatuen eremuetarako bisitaldian parte hartzera gonbidatzen duena.

– Nafarroako liburutegien sistema arautzen duen Foru Lege proposamena. Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak zuzenketei eusteko aurkezturiko idazkia.

– Pertsona zaharrak hartzeari buruzko Foru Lege proposamena. Foru parlamentari Milagros Rubio andreak zuzenketei eusteko aurkeztutako zuzenketak.

– Galdera, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak aurkeztua, Beste autonomia erkidegoek behi-aziendaren entzefalopatia esponjiformea dela-eta emandako laguntzeekin izan duten estrategiari buruzkoa.

– Galdera, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina, Europako Batasunaren erabakietan Nafarroak duen parte hartzeari buruzkoa.

– Galdera, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina, Poliziaren arloko eskumenak hartzeari buruzkoa.

– Galdera, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina, Poliziaren arloko eskumenak hartzeari buruzkoa.

– Foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunaren idazkia. Horren bidez, zenbait informazio eskatzen ditu Nafarroan Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak ingresaturiko zenbatekoei buruz.

– Galdera, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina, Nafarroako Gobernuak Madrilen duen ordezkariak egindako lanari buruzkoa.

– Berribeiteko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2001eko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina.

5ean:

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztutako idazkia. Haren bidez, mozio bat Foru Araubide Batzordean tramitatze eskaria egiten dute; mozio horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Foru Komunitateko ikur eta sinboloei buruzko informazioa

emateko eta haiek indartzeko, ezagutzera emateko eta erabiltzeko plan bat egin dezan.

– Pertsona zaharrak hartzeari buruzko Foru Lege proposamena. Foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak zuzenketei eusteko aurkeztutako zuzenketak.

– 2003ko urtarrilean Iruñean egingen den "Oztopo arkitektonikoak kentzeari buruzko Nazioarteko Topaketaren" programa.

– Foru parlamentari Joxe Fernando Barrena Arza eta Felix Puyo Rebollo jaunaren idazkia. Kolektibo batzuekin lan bilera bat egitea eskatzen dute, aurrekontuei buruzko balorazioak egin ditzaten.

– Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldearen idazkia. Haren bidez, Ingurumen kontseilariaren agerraldia eskatzen du Larrako natur erreserba eta haren babespeneko eremu periferikoa berriz mugatzeari buruzko Foru Lege proposamenari buruz informaziorik dezan.

– Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da administrazioan software librearen erabilera hedatzeko plan bat abian jar dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Galdera, informazioaren gizartea sustatzeko planean sartutako jarduketak betetzeari buruzkoa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua.

– Galdera, Modernizazio esparru berria abiarazteko laguntza teknikoa eta oinarrien garapena kontratatzeari buruzkoa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Mendillorriko IV. eta I. faseen ondoan errepidea bikoizteari buruz foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak eginiko galderaren erantzuna.

6an:

– Nafarroako Gobernuaren erabakia. Horren bitartez Indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzko 22/2002 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aintzat hartu izanarekin ados ez dagoela adierazi du.

– Galdera, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak egina, TRACASaren balizko

privatizazioa justifikatzen duten arrazoiei buruzkoa.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearen idazkia. Horren bitartez, Hezkuntza eta Kultura Batzordeak Zangozako Santa María la Real elizara bisitaldia egitea eskatzen du.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearen idazkia. Horren bitartez, Nafarroako Gobernuaren agerraldia eskatu du, Vianako Printzea Erakundeak Zangozako Santa María la Real elizaren hondatzea saihesteko hartuko dituen neurriak azal ditzan.

7an:

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Legionelosiari aurrea hartu eta kontrolatzeko uztailaren 27ko 909/2001 Errege Dekretuaren betetzeari buruz foru parlamentari María Isabel Arboniés Bermejo andreak eginiko galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Agoitzen dagoen Solano 2000 SL enpresari emandako laguntzei buruz foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak eskatutako informazioa.

– Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren idazkia. Harekin batera, Iruñean eginen diren Nafarroako I. Jardunaldi Juridiko-sanitarioei buruzko dokumentazioa.

– AEM delakoaren idazkia. Haren bitartez datorren abenduaren 16an eginen den Biltzar Orokorren berri ematen du.

– Nafarroako Retinosi Pigmentarioaren Elkar-tearen idazkia. Horren bidez, lan bilera bat eskatzen dute Parlamentuko taldeekin, zenbait gairi buruz informatzeko.

8an:

– Horren bidez, Nafarroako Gobernua premia-tzen da Oinarrizko Laguntza Berrantolatzeko Planean diseinaturiko jarraibideak apika ditzan. Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Horren bidez, Nafarroako Gobernua premia-tzen da ordenadoreak erosteko beste kanpaina bat egin dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearen idazkia. Horren bitartez, Sare Elkar-tearekin eta Hiesaren aurkako Batzordearekin lan bilera bat egitea eskatzen dute.

– Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premia-tzen da Andosillako Udalarekin negoziazio-etan hasteko, kasino nagusia herritarrentzako zentro gisa zaharberritzeari begira. Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andrearen idazkia. Horren bitartez, Hezkuntza kontseilariaren agerraldia eskatzen du, San Frantziskoko eskolen eraikina deskatalogatzeko eginiko eskariari buruz informa dezan.

– Foru parlamentari Fernando Barrena Arza eta Shanti Kiroga Astiz jaunen idazkia. Haren bidez, ordezkari bat izendatzen dute Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuari eta Administrazioari buruzko Foru Lege proposamena eztabaidatzeko ponentziarako.

– Foru parlamentari José Puyo Reboloren idazkia. Horren bitartez, informazioa eskatzen du lanean ari eta seme-alabak dituzten emakumeei Nafarroan emandako laguntza publikoei buruz.

11n:

– Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldearen idazkia. Horren bidez, ordezkari bat izendatzen dute Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuari eta Administrazioari buruzko Foru Lege proposamena eztabaidatzeko ponentziarako.

– Navcontel, SLren txostena, Nafarroako gaurkotasuneko gaiei buruzko inkesta dela eta.

– Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldearen idazkia. Horren bidez, ordezkari bat izendatzen dute Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuari eta Administrazioari buruzko Foru Lege proposamena eztabaidatzeko ponentziarako.

– Konstituzio Auzitegiaren idazkia. Horrekin batera, Unibertsitatei buruzko Legea dela-eta aurkeztutako konstituziokontrakotasun errekurtsioak metatzeari ezezkoa ematen dion autoaren kopia.

– Galdera, Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida de Navarra Parlamentuko Taldearena, Artozkiko kontzejuan telefono zerbitzua berriz jartzeari buruzkoa.

– Oztopo fisiko eta zentzumenezkoei buruzko uztailaren 11ko 4/1988 Foru Legea aldatzeko Foru Legea proposamena. Unión del Pueblo Navarro Parlamentuko Taldeak aurkeztutako zuzenketak.

– Oztopo fisiko eta zentzumenezkoei buruzko uztailaren 11ko 4/1988 Foru Legea aldatzeko Foru Legea proposamena. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztutako zuzenketak.

– Zarrakazteluko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina.

– Alargun pentsioetarako laguntza bereziei buruzko Foru Lege proposamena. Unión del Pueblo Navarro Parlamentuko Taldearen idazkia, Nafarroako Kontseiluak txostena eman dezan eskatzekoa.

– Unión del Pueblo Navarro Parlamentuko Taldearen idazkia. Horren bidez, ordezkari bat izendatzen dute Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuari eta Administrazioari buruzko Foru Lege proposamena eztabaidatzeko ponentziarako.

– Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andrearen idazkia. Horren bidez, lan bilera bat eskatzen du, San Frantzisko ikastetxeko gurasoen elkartearekin, ikastetxeko hezkuntza egoerari buruz informa dezan.

– Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andrearen idazkia. Horren bidez, Nekazaritza kontseilariaren agerraldia eskatzen du, gaixotasun batzuen azken agerraldiei buruz eta abere hilen hobei buruz informa dezan.

– Parlamentura 2002ko ekainetik irailera igorritako aurrekontu-aldaketen legezketasunari buruzko txostena, Kontuen Ganbarak igorria.

12an:

– Nafarroako 2001eko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua, Nafarroako Gobernuak igorria.

– Foru Lege proiektua, Zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa.

– Administrazioarekiko Auzietako Bigarren Epaitegiaren idazkia. Horren bidez, SOS Nafarroako sendagileen lanpostuen bitarteko izaera konpontzeko Nafarroako Gobernuak premiatzeko mozioari Unión del Pueblo Navarro Parlamentuko Taldeak aurkeztutako zuzenketa eskatzen du.

– Minusbaliatu fisikoen elkartearen idazkia. Egoitza berria bisitatzeko eskaria egiten du.

– Arartekoaren erabakia. Parlamentuko Mahaiari plantilla organikoan jasotako administrazio-ko lanpostu hutsa betetzeko prozedurari hasiera eman diezaion eskatzen dio.

– Gapael-Nafarroaren idazkia. Herrien Defentsarako Komiteko ordezkariak Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordean har ditzaten eskatzen du.

– Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da etxez etxeko laguntzaren arloko politikak gara ditzan. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua eta Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko taldeek eta Rubio Salvatierra andreak (Askotarikoa) aurkeztu dute.

– Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da etxez etxeko laguntzaren arloko politikak gara ditzan. Foru parlamentari Mariné Pueyo Danso eta Felix Puyo Rebollo jaun-andreak aurkeztu dute.

– Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldearen proposamena, talde bakoitzak funtzio administratiboetan ari zeko pertsona bat eduki dezan.

13an:

– Foru parlamentari Fernando Barrena Arza eta Shanti Kiroga Astiz jaunen idazkia. Haren bidez, ordezkari bat izendatzen dute Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuari eta Administrazioari buruzko Foru Lege proposamena eztabaidatzeko ponentziarako.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearen idazkia. Horren bitartez, Viának Printzea Erakundeko zuzendariaren agerraldia eskatzen dute. Nafarroako Gobernuak Jorge Oteiza Fundazioan eginiko jarduketei buruz informa dezan.

– Nafarroako Auzitegi Nagusiaren idazkia. Horrekin batera, 2001eko txosten judiziala.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, foru parlamentari Burguete Torres Pirinioetako ibarretarako plan sozioekonomiko bat egiteari buruz onetsitako erabakiaren garapenari buruz egindako galderaren erantzuna.

Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Orkoiengo TRW enpresari emandako diru-laguntzei buruz foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak eginiko galderaren erantzuna.

– Caparrosoko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2001eko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina.

– Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andrearen idazkia. Horren bidez, minusbaliatuen

“2003 Batzordearekin” lan bilera bat egitea eskatzen du, beren proposamen berri eman dezaten.

14an:

– Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ospitaleez kanpoko larrialdietarako landa zerbitzu bat sor dezan. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andrearen idazkia. Horren bidez, Herrien Defentsaren aldeko Komiteko ordezkariekin lan bilera bat egitea eskatzen du.

– Antonio Recio Pérez jaunaren idazkia, bere egoera salatzeko.

– Foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andrearen idazkia. Horren bitartez, lan bilera bat egitea eskatzen du Gapaelekin herri mixtekoaren egoerari buruz informa dezaten.

– Foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andrearen idazkia. Horren bidez, minusbaliatuen komitearekin lan bilera bat egitea eskatzen du, beren proposamen berri eman dezaten.

– Lurraldearen antolamendu eta hirigintzari buruzko Foru Lege proiektua. Foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak zuzenketei eusteko aurkeztutako idazkia.

– Galdera, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak aurkeztua, administrazioaren eta sindikatuen artean lorturiko akordio batzuen betetzeari buruzkoa.

– Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erizaintzako laguntzaileen kolektiboko ordezkari sindikalekin negoziazio-mahai bat sor dezan. Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldearen idazkia. Horren bidez, ordezkari bat izendatzen dute Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuari eta Administrazioari buruzko Foru Lege proposamena eztabaidatzeko ponentziarako.

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldearen idazkia. Horren bidez, Lizarrako merindadean uraren arazoak konpon ditzan eta Ega ibaia erregulatzeko plangintza bat presta dezan Nafarroako Gobernua premiatzen duen mozioa Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Batzordean tramitatzeko eskaria.

– Galdera, foru parlamentari Juan Cruz Alli Aranguren jaunak aurkeztua, Baroja museoa erakitzei buruzkoa.

– Idazkia, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldearena. Horren bitartez, Nafarroako minusbaliatuen ordezkarien talde batekin (CORMIN) lan bilera egitea eskatu du, bere eskaerei buruz informa dezan.

15ean:

– Espainiako armada egiten ari den maniobra militarrei buruzko adierazpen instituzionalaren proposamena, Askotariko Parlamentuko Taldeko eledun Barrena jaunak aurkeztua.

– Foru parlamentari José Puyo Reboloren idazkia. Horren bitartez, informazioa eskatzen du Nafarroako lurreko telebista digitalaren lizentziak adjudikatzeko baldintzen plenguari buruz.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Arriskuko kirolen praktika arautzeari buruz foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak eginiko galderaren erantzuna.

– Gapael-Nafarroaren idazkia, Nazio Batuek Iraken izan duten giza laguntzako agentzien koordinatzaile Hans Von Sponek Irakeko herriaren egoerari buruz informa dezan.

– Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere egiten ditu Amnesty Internationalek Errusiako lehendakari Putin jaunari egin dizkion eskariak. Rubio Salvatierra andreak (Askotarikoa) aurkeztu du.

18an:

– Lurraldearen antolamendu eta hirigintzari buruzko Foru Lege proiektua. Foru parlamentari Shanti Kiroga Astiz jaunak zuzenketei eusteko aurkeztutako idazkia.

– Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Lege proiektua. Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak zuzenketei eusteko aurkeztutako idazkia.

– Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Lege proposamena. Foru parlamentari Milagros Rubio andreak zuzenketei eusteko aurkeztutako idazkia.

– Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Lege proiektua. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak zuzenketei eusteko aurkeztutako idazkia.

19an:

– Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzura hornidurak erosteko sistemari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina.

– Irakeko Errepublikako enbaxadaren idazkia, iparamerikarren mehatxuen aurkako adierazpen instituzionala jaso izanaren berri ematen duena.

– Lehendakaritza Ministerioaren idazkia. Harekin batera, 2455. erakunde eta autonomiei buruzko azterlana II.

– Baztango Udalaren idazkia. Horrekin batera, Barandalla presoaren egoerari buruzko mozioa.

20an:

– Espainiako Gobernuak Nafarroan duen Ordezkaritzaren idazkia. Horrekin batera, Afapnaren idazkia, elkarretaratze baten berri ematen duena.

– Dos de Mayo ikastetxearen idazkia. Ikastetxearen zabaltzea dela ezinegona adierazten du.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horren bidez, zenbait aurrekontu-aldaketa baimentzen dituzten erabaki, foru agindu eta ebazpenen jakinarazpenak igortzen ditu.

– Foru parlamentari José Miguel Nuin Moreno jaunaren idazkia. Horren bidez, 21. toki agendaren zabalpenari buruzko informazioa eskatzen du.

– Foru parlamentari José Miguel Nuin Moreno jaunaren idazkia. Haren bitartez, Nafarroako Ikusentzunezkoen Kontseiluaren aktei buruzko informazioa eskatzen du.

– Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren idazkia. Harekin batera, toki azpiegiturei buruzko plan berezi berrian zein herri herri sartzen diren zehazteko egindako azterlan soziologikoa.

– Alde Zaharreko Auzo Elkartearen idazkia. Informatika ekipu berriak erostea eskatzen dute.

– 2003ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua. Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako osoko zuzenketa.

– Alargun pentsioetarako laguntza berezietan buruzko Foru Legea. Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztutako zuzenketa.

– Galdera, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak aurkeztua, Iruñerriko hotel batean sarrio bat agertu izanari buruzkoa.

21ean:

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, El Corte Inglési buruz foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak eskatutako informazioa.

– ACSren idazkia, jarritako bermea itzul dakion eskatzeko.

– Murillo el Frutoko Udaleri buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganbarak egina.

– Unión del Pueblo Navarro eta Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko taldeek aurkezturiko errekurtoa, Zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektua presaz ez tramitatzearen aurka.

– Generoko indarkeriari buruzko adierazpen instituzionala egiteko proposamena, Unión del Pueblo Navarro Parlamentuko Taldeak aurkeztua.

– Nafarroako Kontseiluaren idazkia. Haren bitartez, Alargun pentsioetarako laguntza berezietan buruzko Foru Lege proposamenaren gaineko irizpena egiteko eskaria jaso izanaren berri ematen du.

– 2003ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua. Foru parlamentari Joxe Fernando Barrena Arza jaunak aurkeztu du.

22an:

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearen idazkia. Horren bitartez, Vida Digna kolektiboko ordezkariekin lan bilera bat egitea eskatzen dute, pentsioen balizko igoeraz hitz egin dezaten.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearen idazkia. Horren bitartez, lan bilera bat egitea eskatzen da, Alargun Pentsioen Berdintasunaren aldeko Plataformako kideekin.

– Nafarroako merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 11ko 17/2000 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena. Foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak aurkeztu du.

– Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileentzako neurriari buruzko Foru Lege proiektua. Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako zuzenketa.

– Auzitegi Nagusiaren idazkia. Horren bidez, Entzutegia izandako eraikina zaharberritzeko kontratua aldatzeari buruzko espedientea administratiboa eskatzen du.

– 5. instrukzio epaitegi zentralaren idazkia. Zenbait parlamentariren egungo nolokotasunari buruzko ziurtagiria eskatzen du.

– Askotarikoa Parlamentuko Taldearen idazkia. Gainerako taldeen leku baldintza berdinak eskatzen dituzte.

– Iruñeko Komunikabideak elkartearen idazkia. Irrati emisoreen kontzesioari buruzko ondorioak onetsi zituen erabakiaren ziurtagiria eskatzen du.

– Iruñeko Komunikabideak elkartearen idazkia. Informazio-lanetarako kreditaturik daudela agerrarazten duen ziurtagiria eskatzen du.

– Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andrearen idazkia. Horren bidez, botoa delegatzen du foru parlamentari José Pernando Barrena Arzaren eskuetan, Zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiekturako.

25ean:

– Kontuen Ganberaren idazkia. Mahaiaren aurreko agerraldia eskatzen dute, 2003rako lan programaren proiektua azaltzeko.

– Berriozarko Bigarren Hezkuntzako Institutuaren idazkia. Altzariak eskatzen dituzte.

– Siziliako Batzarraren idazkia. Funtz estrukturaleri buruz hitz egiteko bilera bat egiteko interesa adierazten dute.

– Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politika arbuatzen du. Arroyo Leatxe jaunak aurkeztu du.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, aldi baterako enpleguen kopurua murrizteko planari buruz foru parlamentari Felix Puyo Rebollo jaunak eskatutako informazioa.

26an:

– Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida de Navarra Parlamentuko Taldearen idazkia. Horren bidez, Corellako Udalarri emaniko laguntzei buruzko informazioa eskatzen du.

– Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldearen idazkia. Horren bidez, Huger Mantenimiento enpresako langileen batzarrarekin lan bilera bat egitea eskatzen du.

– Fusilatuen Senitartekoen Elkartearen idazkia. Beren erabaki eta eskariak azaltzeko agertzea eskatzen dute.

– ANFASen idazkia. Beren zentroetara bisita bat egitea eskatzen dute.

– Garin San Martínen idazkia. Lizarrako alkateari buruzko informazioa eskatzen du, parlamentaria den aldetik.

– 2003ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua. Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako zuzenketak.

– Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andrearen idazkia. Horren bidez, fusilatuen senitartekoen elkartearekin lan bilera bat egitea eskatzen du.

27an:

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, eremu mistoan euskararen erabilerari buruzko arauen eta haien betetzeari buruz foru parlamentari Felix Puyo Rebollo jaunak eginiko galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, erditze, zesarea eta haurren ospitale-larrialdien kopuruari buruz foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak eginiko galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, pediatrek egiten dituzten guardiei buruz foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak eginiko galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Tuterako ospitaleko laguntza pediatrikoari buruz foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak eginiko galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Castejónko Dos de Mayo ikastetxe publikoak zabaltzeko lanei buruz foru parlamentari María Isabel Arboniés Bermejo andreak eginiko galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Nafarroako familiak babesteko politikari buruz foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak eginiko galderaren erantzuna.

– Tabakoaren aurrean gaixotasunei aurrea hartu eta osasuna bultzatu eta babesteari buruzko Foru Lege proiektua. Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida de Navarra Parlamentuko Taldeak zuzenketei eusteko aurkeztutako idazkia.

– Tabakoaren aurrean gaixotasunei aurrea hartu eta osasuna bultzatu eta babesteari buruzko Foru Lege proiektua. Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak zuzenketei eusteko aurkeztutako idazkia.

– Nafarroako administrazio publikoaren monte-pioetako funtzionarioen eskubide pasiboari buruzko Foru Lege proiektua. Unión del Pueblo Navarro Parlamentuko Taldeak aurkeztutako zuzenketak.

– Administrazioarekiko auzi-errekurtsoen 2. auzitegia. Horren bidez, SOS Nafarroako sendagileen lanpostuen bitarteko izaera konpontzeko Nafarroako Gobernuak premiatzeko mozioari Unión del Pueblo Navarro Parlamentuko Taldeak aurkeztutako zuzenketa eskatzen du.

– Abereen osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzen duen Foru lege proiektua. Foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrera jaunak aurkeztutako zuzenketa.

– Galdera, foru parlamentari José Andrés Burquete Torres jaunak aurkeztua, arte garaikidearen Nafarroako zentroa Iruñeko ziudadelan eraikitzeari buruzkoa.

Galdera, foru parlamentari José Andrés Burquete Torres jaunak aurkeztua, 2000-2003 eperako kirol-instalazioen planaren garapenari buruzkoa.

– Txikizkako Merkataritzaren Kontseilu Aholkuemailearen osaketa arautzen duen Foru Lege proposamena. Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– 2003ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua. Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztutako osoko zuzenketa.

28an:

– Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren erabakia. Horren bidez, Gaztelu Plaza Elkartearen kexa helarazten du bideo-jokoak direla-eta.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Euskarari buruzko Foru Legeak definituriko lurralde-eremuen arabera, errepideetako kontserbazio programen barruan eginiko jarduketei Puyo Rebollo jaunak egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, aukeren berdintasunari buruz foru parlamentari Felix Puyo Rebollo jaunak eskatutako informazioa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, drogen behatokiari buruz foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak eskatutako informazioa.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearen idazkia. Horren bitartez, 36ko fusilatuen senitartekoen elkartarekin lan bilera bat egitea eskatzen dute.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearen idazkia. Horren bitartez, lan

bilera bat eskatzen dute Oieregiko Tuneleko obrak egin zituen enpresako ordezkariekin eta Herrilan kontseilariarekin.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearen idazkia. Horren bidez eskatzen dute Arartekoak ikerlan bat egin dezala Jorge Oteizaren Altzuzako museo-etxeari buruz.

– Banantze edo dibortzio kasuetan mantenu-eta konpentsazio-pentsio ordaingabeen ehunekari buruzkoa. Castillejo Hernández andreak aurkeztu du.

– Galdera, foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak aurkeztua, Erasoen ondoriozko banantze eta dibortzioen indizeari buruzkoa.

– Galdera, Castillejo Hernández andreak aurkeztua, banantze- edo dibortzio- epaien ondoriozko mantenu- eta konpentsazio-pentsioak ordaintzen ez direnerako berme-funts bat sortzeari buruzkoa.

– 2003ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua. Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeak aurkeztutako osoko zuzenketa.

– 2003ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua. Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeak aurkeztutako zuzenketa.

– ANACASITen idazkia. Lan bilera bat egitea eskatzen du, lan jazarpenaren egoera azaltzeko.

– 2003ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztutako osoko zuzenketa.

– 2003ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztutako zuzenketa.

– Iruñeko Udalaren idazkia. Egoitza berrian antzemandako akatsak adierazten ditu.

– Turismoari buruzko Foru Lege proiektua. Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak zuzenketei eusteko aurkeztutako idazkia.

– 2003ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua. Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztutako zuzenketa.

– 2003ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua. Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztutako zuzenketak.

– 2003ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua. Askotariko Parlamentuko Taldeak aurkeztutako zuzenketak.

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldearen idazkia. Horren bidez, Gizarte Gaietarako, Hezkuntza eta Kultura eta Industria,

Lan, Merkataritza eta Turismo batzordeek ANFA-Sen zentroetara bisita bat egitea eskatzen du.

– Turismoari buruzko Foru Lege proiektua. Foru parlamentari Milagros Rubio andreak zuzenketei eusteko aurkeztutako idazkia.

– Askotariko Parlamentuko Taldeko foru parlamentarien idazkia. Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordean lan bilera bat egitea eskatzen dute 1936ko kolpe militarren ondorioz fusilatu eta desagerturikoen senitartekoen elkartearekin.

